



B. DE S. FRANCISCO

AITA KAPUTSINOEN  
Misiyotako Eresiyak.



## MISİYOKO DEIA

135

Atoz pekataria,  
Atoz Elizara,  
Jangoikoaren itza  
Gogoz aditzera.

Pekatuan oera  
Etziten bazera,  
Menturaz infernuan  
Esnatuko zera.

Pekatuen neurria  
Bete ez dezazun,  
Aditu Jaungoikoak  
Zer esaten dizun.

Urterik asko Jaunak  
Zuri eman dizkitzu,  
Eta danak pekatuz  
Zuk bete dituzu.

Ez egonpekatuan  
Ez egon luzaro,  
Damu izan ez dezazun  
Alferrikan gero

Misiyokoden boraz  
Baliatu gabez,  
Daude, bai, infernuan  
Gaur asko negarrez.

## BARKAZIOA

Noiz arte bear dezu  
Egon pekatuan  
Ikusirik zaudela  
Iya infernuan  
Danyuz begiraturik  
¡Arren! animari  
Bigun bedi kristaua  
Biotz gogor ori.

Ni naiz; oh Jesus ona  
Zure borrheroa,  
Damu det milla bider  
Zu ofenditua.

Jesus agertzen zaizu  
Dena urraturik  
Odola dariola  
Gurutz-iltzaturik

Emen naukazu, Jauna  
Negarrez urturik  
Nere kulpa guztiaz  
Oso damaturik.  
Jesus, eskatzen dizut  
Biotz biotzetik  
Bedeinka nazazula  
Gurutze ortatik.

## ANDRE MARIARI AGURRA

- Jaungoikoak gorde zaitzala, (1) Erregina,  
Errukitasunezko Ama,  
G—Bizitza, gozotasun eta gure ustea,  
Jaungoikoak gorde zaitzala,  
Zure deyez gaude
- G—Ebaren ume erbestetuok;  
Zugana gaude naigabez  
Samintasun eta negarrez
- G—Negarrezko ibar onetan.  
Ea, bada, gure Andrea,  
Eta Bitartekoa,
- G—Itzuli itzatzu gugana  
Zure begi samur-gozo oyek,
- G—Eta erbeste onen ondoan  
Erakutsi egiguzu Jesus  
Zure sabelak emandako  
Bedeinkatua.
- GG—¡O Biotz bera!  
GG—¡Ama lastana!  
Ama maite-gozo Maria,  
Otoitz egizu gugatik  
Jaungoikoaren Ama ona,
- GG—Iritsi dezagun  
Bildurrikan gabe
- G—Jesukristok agindua  
Amen, Jesus.

(1) Lodi auetan guztiyotan jetsi-aldiya egin.

## Egizu Zuk Maria

*Egizu Zuk, Maria,  
Gugatik errequ  
Eriotzako orduan  
Ez gaitezen galdu.*

Pekatariorik Ama,  
Birjiña zaitugu:  
Zugan gure biotza  
Guk ipintzen degu.

Zure izen santuak  
Balia bekigu,  
Zure biotz onean  
Ustea guk degu.

Sekulan inor ezta  
Ta bai, Maria, Zu,  
Ama izan ezkerro  
Donzella gelditu.

Jaungoikoaren Ama  
Egiñik zakusgu:  
¡Arren! zure semetzat  
Ezagun gaitzatzu.

Zure Semeak gaitu  
Zerutik billatu:  
¿Nola Zuk naiko dezu  
Gu gaitezen galdu

## Esnatu zaite

Esnatu zaite pekataria  
Orain da, orain, ordua  
¡Begira gaxua  
Asarre Jainkua!  
Ordu danean egin zazu  
Jainkoarekin pakia.

Begira gaxua  
Zure pekatua.

Begira gaxua  
Eriotz ordua.

Begira gaxua  
Infernuko sua.

Begira gaxua  
Betiko galdua.

Begira gaxua  
Jauna asarretua.

Danak

Jesus gure Jawn maite  
Amoriotzua,  
Damu degu guztiyok  
Zu ofenditua.

Batzuek

-1-

Josirik, ikustean  
Gurutze orretan Zu,  
Urrikarriz biotza  
Nork urratuko ez du?  
Baita baleuka ere  
Arri biurtua.

Dana zatiturik:  
Arantza gogorrakin  
Josirik burua,

-4-

Ainbeste min gogorrez  
Eririk zerula,  
Artzai bat ardiaren  
Ondoren bezela,  
Gure billa zabilta  
Errukiz urtua,

-2-

Burutik ofetara  
Gorputz eder ori  
Zauri bat egifinika  
Dezu guzi ori.  
Ay! zori gaiztokoa  
Gure pekatua,

-5-

Jesus Zu gure billa  
Ta guk iges Zuri?  
Gure bear zerala  
Zu, Jauna, dirudi.  
Oh gizon esker-gabe  
Gaizto zoratua!

-3-

Oñak, esku ta albo  
Burniz zulaturik,  
Bizkar-aldea azotez

Danak

Kristo gure Errege  
Agurtu dezagun;  
Zeru-lurren Jabe  
Aitortu dezagun.

-1-

Batzuek

Fede bizi baten  
Danok ernai,  
Zureak gera gu  
Oh Jesus, bai!  
Zureak gera gu  
Oh Jesus, bai!  
Ez beste jaberik,  
Ez degu nai.

Beraren Legean  
Ibil zaite  
Bide tsarretatik  
Alde, alde.

-4-

-2-

Jesus'en etsayak  
Betoz noiz nai,  
Armak eskuetan  
Gauden ernai:  
Armak eskuetan  
Gauden ernai,  
Jesus'ekin goazen  
Goazen alai.

Jarri bedi Jesus  
Biyotzetan,  
Bereak bagera  
Gu benetan.  
Bereak bagera  
Gu benetan,  
Ikusiko gera  
Zeruetan.

-5-

-3-

Egiyaz badezu  
Jesus maite,  
Beraren Legean  
Ibil zaite:

Jesus'en izena  
Gaur kantatu  
Bere zoriyona  
Bai, zabaldu.  
Bere zoriyona  
Bai, zabaldu,  
Toki guztiyetan  
Gora Jesus!



## ARTZAI ONAREN AMARI

### Danak

*Ama, ama, ez utzi  
Satanen mendean  
Euskaldunak eduki  
Zure babesean.*

—1—

Ementse gaude, Ama  
Zuri agurka gu  
Begi oiek gugana  
Itzuli itzatzu

—4—

Begiratu diguzu  
Ama, oraindaño;  
Begiratu zaiguzu  
Azken-orduraño.

—2—

Bearrago gerade  
Sekulan baño gaur,  
Eta ez genezake  
Zu gaberik iraun

—5—


Arren zure egapean  
Eduki gaitzatzu,  
Etsai gogor-zitalak  
Ez gaitzan ondatu.

—3—

Etsayen begi utsak  
Gaituzte bildurtzen,  
Zugandiko laguntzak  
Poztutzen, alaitzen,

—6—

Gorde gaitzatzu bizi  
Geran bitartean,  
Ta gero sar gaitzatzu  
Betiko zeruan.



## Etsaiyak izutzen naute

«Sálvame, Virgen María» bezela.



### Danak

*Etsaiyak izutzen naute  
Dardaraz nator Zugana;  
¡Maqalean artu nazazu  
Amatso guztiz lastana!*

### Batzuek

—1—

Ez naiz izan ona Zuretzat,  
Askotan zaitut larritu;  
Jainkoa ere aserre dago  
¡Ama, nizaz errukitu!

—2—

Gurutzean Seme maiteak  
Gu zaitzeko esan dizu,  
Ar gaitzatzu zure mendean  
Gu zer geran badakizu.

—3—

Griña tsarrak, bide okerrez,  
Gaitzeronz beti narama;  
Baña zuzen nai det ibilli  
¡Izan zaitetz nere Ama!

# GURE EGITEKOAK

## Danak

*Zuri gure biotza  
Eskeintzen dizugu,  
Jesus, zureak beti  
Izango qaituzu*

## Batzuek

—1—

Goritutako burniz  
Zulatu-idikiya  
Bear luteke mingaña  
Biraolariyak

Kentzendiztekristauei  
Edan geyegiyak.

—6—

—2—

Ian egiten dutenak  
Jai edo igandean  
Dira lapur zitalak  
Jainkoaren aurrean

Eztegu nai billerik  
Ez dantza lotuak  
Mutill nazkagarriak  
Ta neskats tsoruak.

—7—

—3—

Jesusek esaten du  
Zeruratutzeko  
Gurasoen esanak  
Ondo egiteko.

Zernan inor ere  
Ez diteke sartu  
Ostutako guztiya  
Ordaintzen ez ba lu.

—8—

—4—

Zorrozki, bai, ait' amak  
Kontu eman bear dute  
Umeak gaizki azitzen  
Baldin badituzte.


Gezur eta itz zikiñak  
Esaten duenak  
Iltzen du bere arima  
Eta lagunena

—9—

—5—

Arimaren ondasun  
Ta doai guztiyak

Mutill eta neskatsak  
Giz-omakumeak  
Illuntzerako gorde  
Ditzala etseak.



---

Imp. de N. S.<sup>a</sup> de los Dolores Pamplona